

Landa eremutik
hirira balioa
erantsiz

nirea
AKORDIOA



AKORDIOA



Landa Mundu bizi bat izateko, Lehen Sektorea lehiakorra eta jasangarria izan dadin ezinbestekoa da. Eta Euskadin, Itsas eta Landa Mundua izatea funtsezkoa da, dugun gizarte motari eusteko.

Berezko gizarte bat, benetakoa, gurea. Garenaz harro dagoena eta izango garenaren aurrean umiltasuna agertzen duena.

Berrikuntzaren alde egiten duen gizarte bat eta hazkunde ekonomiko, orekatua, sostengarria eta denontzako ongizatearen inguruan kezka duena. Aurrekoek utzitakoarekin eskertuta dagoen gizarte honek gizarte mota honi eutsi nahi dio.

Landa eta Hiri Mundua. Gizonak eta emakumeak. Zu eta biok.

Denon artean, gure sustraiek fruituak ematen jarrai dezaten lor dezakegu.



AKORDIOA



Gutako bakoitzak, egunero hartzen ditugu erabakiak, eta hauek beren ondorioak dituzte.

Gure erosketa erabakiekin, gure inguruko eredu ekonomiko, kultural eta sozialean zuzenean eragiten ari gara. Hemengo produktuak erosita, bertako ekoizleei erosita, denontzat onuragarria den eredu mantentzen ari gara. Honela, ekoizlearen garrantzia aitortzen ari gara, eta era berean, Landa eta Itsas Munduarena.

Denok, hau bezalako gizarte ereduaz balliatzen jarraitu nahi badugu, konpromisoa hartu beharra dugu.



AKORDIOA



Hausnarketa honek, **nirea** izeneko egitasmo bat sustatzera eraman gaitu. Honekin bi mundu harremandu nahi ditugu, fisikoki gertu daudenak, baina kulturalki elkarrengandik urrutiratzen ari direnak. Bi mundu hauek elkarri ekarpen izugarriak egin ahal dizkiote, biak estututa, irabaziak denontzako diren planteamendu batean.

Programa honen Lehen Sektorearen Berrindartze Ekonomikoa Landa eta Itsas Munduaren sustatzea jarraitzen ditu. Honen bitartez, Euskadin LANDA-HIRI harremana areagotu eta sakontzean ahalegintzen da programa. **Nirea** izena egokitu d'ogugu, pertsonala delako, norberarena.

Pertsona bakoitzaren erabakiekin eraikitzen joango da, hain justu, egitasmoa berea egiten duten guztiekin, modu honetan konpromisoa hartu nahi duten guztien egitasmoa izango da. Eragile askoren inplikazioa behar dugu, eta **nirea**rekin banan bana konpromisoa hartzea, bere lorpenak geroz eta handiagoak izan daitezzen, eta denon artean, efektu biderkatzailea izan dezan. Akordio honen sinatzaileok, **nirea**ren helburuak partekatzen ditugu. Zure babesa adierazteko, ondoren ageri den gehigarria betetzea besterik ez duzu.

MILA ESKER ZURE LAGUNTZARENGATIK.

